



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Barne gatazka armatua ukatzea:
nola aitortu babes subsidiarioa
Kolonbiako gatazk(et)atik ihesean
datozenei?**

Araitz Peña Mallona

87-94 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.11>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



BERGARA

Barne gatazka armatua ukatzea: nola aitortu babes subsidiarioa Kolonbiako gatazk(et)atik ihesean datozenei?

Araitz Peña Mallona

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea
araitz.pena.m@deusto.es

Laburpena

Nazioarteko babesaren aitortzeko estatutuen artean, babes subsidiarioa bigarren mailako kategoria juridikoa izan da Europar Batasunean, eta bereziki Espainiar estatuan. Babes hori aitortzeko baldintzen artean jasotzen den barne gatazka armatuaren beharra ez da Kolonbia bezalako herrialdeetan era egonkorrean aplikatu, bereziki babes subsidiarioaren kasuan. Lurraldeen ikuspuntua eta gatazkan parte hartzen duten aktoreen indarkeria egiteko gaitasuna eta estatuen babesteko gaitasuna funtsezko elementuak dira kontzeptu juridikoa era zabalagoan interpretatzeko eta barne gatazka armatu gehiago estatutu horren barnean sartzeko.

Hitz gakoak: babes subsidiarioa, barne gatazka armatua, Kolonbia, nazioarteko babesaren.

Abstract

Subsidiary protection has been considered as a second level international protection statute in the European Union, and specially in Spain. Among the conditions necessary to qualify for that statute, the consideration of the internal armed conflict has not been systematically and effectively applied to countries like Colombia, regarding the subsidiary protection. A territorial perspective and the capacity of armed actors to inflict serious harm, along with the capacity of the state to protect its citizens are fundamental elements to consider while interpreting the legal concept in a broader way and to include further internal armed conflicts inside the statute of subsidiary protection.

Keywords: subsidiary protection, internal armed conflict, Colombia, international protection.

1. Sarrera eta motibazioa

Nazioarteko babesaren ate ala muga izan daiteke asilo eskatzaile askorentzat. Herrialde askotan sartzeko bide bakarra izan daiteke, euren herrialdeetan jasaten duten jazarpenetik edo gatazka armatuetatik ihesean datozen migratzaileentzat. Hala ere, askotan, asilo zuzenbideak muga gisa jarduten du eskatzaileentzat, sarrera, nazioarteko babes prozedura eta herrialdean geratzeko baimena baldintzatzen baititu (Peña Mallona, 2024). Zuzenbide administratiboak muga gisa funtzionatzeko duen ordenamendu juridiko horretan, errefuxiatu estatutua eta babes subsidiarioa oso kontuz aitortzen diren kategoria juridikoak dira, aitormen horrek eskubideen titulartasuna ematea eta atzerritarrek horiek erabiltzea esan nahi baitu. Mugalde hori gurutzatzen ahalegintzen diren migratzaileak diziplinatzeko, kategoria juridiko horiek definitzera jotzen du Zuzenbide administratiboak. Hala, 2004/83/EK Zuzentarauak¹ era bateratuan zehaztu zituen Europar Batasuneko (EB) herrialde guztietan beharrezkoak ziren nazioarteko babes estatutuak. Mellinok (2021) migrazio-sistema bere osotasunean dispositiboa dela adierazten du, lurraldeen eta biztanleen arteko banaketak sakontzeko, eta asilo sisteman jasotako kategoriek aparteko rola dute.

Babes subsidiarioa 2004 urtean EB mailan eta 2009an Espainiar estatuan onartu zenetik, hainbat eztabaida izan dira bere eta errefuxiatu estatutuaren arteko desberdintasunak zehazteko orduan (Carlier eta Leboeuf, 2017). Haren definizioak, bestalde, zalantza juridiko handiak eragin ditu eta 2009 urtetik EBko Justizia Auzitegiak “mehatxu larriak” edo “barne gatazka armatua” bezalako kontzeptuak argitu behar izan ditu². Hala ere, Espainiar estatuan ez da aztertu definizio horiek nola aplika daitezkeen herrialdera heltzen diren asilo eskatzaileen profiletara.

¹ Jada indargabetua. Gaur egun eta 2026ko uztailaren 1era arte aplikagarri da 2011/95/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko abenduaren 13koa, arlo hauei buruzko arauak ezartzen dituenak: beste herrialde bateko nazionalak edota aberriak nazioarteko babesaren aitortzeko baldintzei buruzkoak, errefuxiatuentzako edota ordezkotako babesaren eskubidea duten pertsonentzako estatutu bateratu bati buruzkoak, eta emandako babesaren edukari buruzkoak. EBAO, L 337/9, 2011ko abenduaren 20koa.

² Ikus Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (Sala Nagusia) epaia, 2009ko otsailaren 17koa, C-465/07 auzia, *Elgafaji* auzia eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (Lugarren Sala) epaia, 2014ko urtarrilaren 30koa, C-285/12 auzia, *Diakité* auzia.

Espainiako Barne Ministerioak argitaratutako datuen arabera (2025), badira bi herrialde arreta bereizia merezi dutenak. 2024 urtean asilo eskatzaile gehienak Venezuelakoak (66.134 eskatzaile) eta Kolonbiakoak (40.140) izan ziren, gainerako herrialdeetakoak zeharo atzean utzita. Venezuelako asilo eskatzaileek arrazoi humanitarioengatik egonaldi baimena jasotzen duten arren (Olivo Valverde, 2019), Kolonbiakoek ezezkoa jasotzen dute orokorrean (17.294 ezezko, gehien jasotzen dituen herrialdea). Nahiz eta nazioarte mailan onartu Kolonbian barne gatazka armatua dagoela (Rulac, 2022) edota bertako asilo eskatzaile batzuek, zenbait baldintza kontuan hartuta, errefuxiatu estatutua jaso dezaketela (UNHCR, 2023), Espainiar estatuan orokorrean ezezko erantzuna jasotzen dute. Hain zuzen ere, 2023an ebazpenen %93,81ek ezezkoa jaso zuten, %4,5ek errefuxiatu estatutua, %1,62k arrazoi humanitarioengatik baimena eta %0,07k babes subsidiarioa (Barne Ministerioa, 2024).

Testuinguru horretan, harritzekoa da barne gatazka armatua duen herrialde bateko asilo eskatzaileen %0,07k baino ez lortzea babes subsidiarioa, eta errefuxiatu estatutua ere oso kasu gutxitan aitortzea. Ezezko tasa altu horren aurrean, beharrezkoa da aztertzea ea Kolonbiako barne gatazka babes subsidiarioaren definizioan sar daitekeen, errefuxiatu estatutuak ezartzen dituen baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileentzat. Horretarako, kategoria juridiko horren definizioa zehaztu behar da, bai legeak eta bai EBren eta Espainiar estatuaren jurisprudentziak emandako irizpideen arabera. Horretarako, legediak eta jurisprudentziak babes subsidiarioaren testuinguruan “barne gatazka armatu” kontzeptutik abiatuko naiz, eta Kolonbiako barne gatazka armatuek duten egoera aurkeztuko dut. Ikerketaren gakoa orain arte jurisprudentziak era horretako kasuei emandako erantzuna berrikustea da, aztertzeko ea gaur egungo testuinguruan Kolonbiako asilo eskatzaileek, errefuxiatu estatutua jaso ezin dezaketenetan, babes subsidiarioa jaso dezaketen.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Babes subsidiarioa, barne gatazka armatuak eragindako mehatxu larrietan oinarrituta, Kolonbiako asilo eskatzaileen kasuan aplika daitekeen zehazteko, funtsezkoa da, alde batetik, ezagutzea zein den jurisprudentziak testuinguru horretan kontzeptuari ematen dion definizioa; eta bestetik, Kolonbiako egungo egoerak dituen ezaugarriak zehaztea.

2.1 Barne gatazka armatua babes subsidiarioaren definizioan

Babes subsidiarioa 2011/95/EB Zuzentarauko 2 e) artikuluan eta Espainiako 12/2009 Legeko 4. artikuluan definitzen da. Definizioak antzerakoak diren heinean, zuzenean aplikagarria den estatuko legeak honakoa adierazten du:

Babes subsidiarioarako eskubidea beste herrialde batzuetako pertsonen eta aberriagabeei ematen zaie, baldin eta, asiloa lortzeko edo errefuxiatu gisa aitortuak izateko baldintzak bete gabe, baina arrazoi sendoak badaude uste izateko jatorrizko herrialdera itzuliko balira, nazionalen kasuan, edo, aberriagabeen kasuan, aurreko ohiko bizilekura itzuliko balira, lege honen 10. artikuluan aurreikusitako kalte larriren bat jasateko benetako arrisku bati aurre egin beharko lioketela [...]

Legeari aipatutako 10. artikulua horretan (Zuzentarauko 15. artikuluan) zehazten dira zeintzuk diren kalte larriok, eta haien artean ageri dira kasu honi dagokizkionak: “c) [Z]ibilien bizitzaren edo osotasunaren aurkako mehatxu larriak, nazioarteko edo barneko gatazka-egoeretan bereizketarik gabeko indarkeria batek eragindakoak”. Definizio horrek, interpretazio arazoak eragin zituen EB mailan. Ondorioz, EBko Justizia Auzitegiak zenbait kontzeptu argitu behar izan zituen 2009 eta 2014an. Artean, hainbat ikertzailek definizioak eragiten zituen arazoak adierazi zituzten: Jakulevicienen (2010) Europar Asilo Sistema Komunaren erreforma prozesuan adierazi zuen 15. artikulua ez zituela nazioarteko babes beharrezko zeuden guztiak batzen; eta Tiedemannek (2012) 15. c) artikulua b) puntuaren barne jaso zitekeela argudiatu zuen.

Hala ere, 2011eko Zuzentzarauak eta 2024an onartutako 2024/1347 Erregelamenduak ez dute 15. artikulua hori aldatu. Ondorioz, EBko Justizia Auzitegiak egindako interpretazioa oraindik indarrean dago. 2009ko *Elgafaji* auzian mehatxu larri eta banakakoak frogatzeko irizpideak zehaztu ziren eta adierazi zen

mehatxu horien existentzia egiaztatutzat jo daiteke[ela], salbuespen gisa, dagoen gatazka armatuaren bereizgarri den bereizi gabeko indarkeria-maila [...] hainbestearino iristen denean, non arrazoi sendoak baitaude uste izateko kasuan kasuko herrialdera edo, hala

badagokio, dagokion eskualdera kanporatutako zibil batek mehatxu horiek jasateko benetako arriskuari aurre egin beharko liokeela, haien lurraldean egote hutsagatik. (43. par.)

Bestalde, 2014ko *Diakité* auzian, Justizia Auzitegiak zehaztu zuen zein definizio erabili behar zen barne gatazka armatua bazela onartzeko. Hala, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak ematen duen definizioa alde batera utzi eta honakoa adierazi zuen:

barne-gatazka armatua dagoela onartu behar da, xedapen honen aplikazioaren ondorioetarako, estatu bateko tropa erregularrek talde armatu bati edo gehiagori aurre egiten diotenean edo bi talde armatu edo gehiagok elkarri aurre egiten diotenean. Ez da gatazka hori nazioarteko izaerarik gabeko gatazka armatutzat jo behar, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren zentzuan, eta gatazka armatuen intentsitatea, inplikaturako indar armatuen antolamendu maila edo gatazkaren iraupena eragindako lurraldean dagoen indarkeria maila aztertzen den bezala baloratu behar dira. (35. par.)

EBko epaiok adierazten dutena kontuan hartuta, funtsezkoa da herrialde eta lurraldeko gatazkaren intentsitate maila kontuan hartzea, eta barne gatazka era autonomoan definitzea. Arlo horretan, *Diakité* auziak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak emandako mugak gainditzea eragin zuen, gatazka gehiago barne hartzeko (Shorokhova, 2014). *Elgafaji* auziak, aldi berean, intentsitate handiko gatazken kasuan, asilo-eskatzailiek mehatxu larri eta banakakoak³ daudela argudiatzeko beharrezko froga neurrira ekarri zuen, eta froga hori Europako Giza Eskubideen Auzitegiko baldintzetara zabaltzea ekarri zuen (Sánchez eta Njiki, 2010). Bi epai horiek estatueta jurisdikzioa findu dute kasu konkretuetan.

2.2 Kolonbiako barne gatazkaren egungo egoera

Kolonbiak bizitako azken barne gatazka armatu multzoa 1960ko hamarkada inguruan hasi zen, herrialdeko hainbat lekutan sortutako gerrilla mugimendutik. Hala ere, herrialdeak ez du bake osorik ezagutu epe luzean aurretik ere. 1980ko hamarkadan hasitako bake prozesuetan garrantzitsua izan zen 2016an Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia – Ejército del Pueblo (FARC-EP) gerrillarekin sinatutako “Gatazka amaitzeko eta bake egonkor eta iraunkorra eraikitzeko azken akordioa”. Kolonbiako Gobernuak eta FARC-EPk sinatutako akordio horrek herrialdean indarkeria mantentzen duten hainbat arlo jorratu zituen: 1) nekazaritza erreforma integrala, 2) partehartze politikoa, 3) su etena eta armagabetzea, 4) gerrillariak bizitza zibilera bueltatu ahal izatea, 5) giza eskubideen defendatzaileen eta bestelako liderren eskubideak babesteko bermeak ezartzea, 6) legez kanpoko drogek eragiten dituzten arazoak konpontzea, 7) biktimei egia, justizia eta erreparazioa bermatzeko sistema, eta 8) akordioa aplikatzen dela berrikusteko sistema (Azken Akordioa, 2016). Hala, bake akordio horrek aurretik indarrean zeuden hainbat tresna juridiko indartu zituen, biktimen arloan bereziki, eta Bakerako Jurisdikzio Berezia eta Egia Argitzeko Batzordea (CEV) sortu zituen.

Egia Argitzeko Batzordeak bere lana 2022an amaitu zuen bere Azken Txostena aurkeztuta, “Hay futuro si hay verdad” (Etorkizuna bada, egia bada). 10 ale eta ia 10.000 orritan jaso zituen barne gatazka armatuak 1960tik 2022ra bitartean egindako biktimizazioak: sarraskiak, judizioz kanpoko exekuzioak, erailketak eta bestelako bizitzaren aurkako atentatuak, derrigortutako desagerketak, atxilotze arbitrarioak, bahiketak, estortsioak, tortura, sexu indarkeria, umeak gerrarako eta behartutako lanetarako errekrutatzea, behartutako desplazamendua eta konfinamenduak, lurrak kentzea eta bestelako giza eskubide eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa urratzea (CEV, 2022). Txostenak Kolonbiako estatuak eta FARC-EP gerrillak egindako krimenez gain, gainerako aktore armatuek egindako delituak ere jaso zituen, eta agerian utzi zuen Bake Akordioek ez dutela gerra amaiarazi herrialdean.

Hala, azken datuek adierazten dute barne gatazka armatua ez dagoela amaituta. Rulac txostenak adierazten duenez (2022), barne gatazkak indarrean dirau ELN (Ejército de Liberación Nacional) gerrillarekin, FARCen hainbat disidentziarekin eta EGC (Ejército Gaitanista de Colombia) talde armatu narko-paramilitarrarekin. Nazio Batuek oraindik 6,8 milioi barne desplazatu daudela adierazi dute (UNHCR, 2024), eta herrialdean bertan gertatzen diren sarraskien jarraipena egiten duten elkarteek adierazi dute 2024an 3 pertsona edo gehiago hil zituzten 76 sarraski egon zirela,

³ Garrantzitsua da adieraztea 2011/95/EB Zuzentarauko 15 c) artikulua mehatxuak “larriak eta banakakoak” izatea eskatzen duela, baina Espainiako 12/2009 Legeko 10 c) artikulua mehatxuak “larriak” baino ez direla izan behar adierazten du.

bereziki herrialdearen mendebaldean (Indepaz, 2025). Aurten egoera zeharo larritu da Venezuelarekin muga egiten duen Catatumbo eskualdean, Norte de Santander departamenduan. ELNrekin hasitako negoziazio mahaia ezerezean geratu ostean, gerrilla hori eta FARCen disidentzietako 33 Frontearen arteko indarkeria zeharo larritu da, eta herrialdeko armada ere gatazkan sartu da (Valencia, 2025). Urtarrilaren 16tik otsailaren hasierara 56 hildako eta 54.000 desplazatu baino gehiago utzi ditu gatazkak (Grippe, 2025).

Catatumboko egoerak eta aurreko urteetako indarkeria mailak agerian uzten dute herrialdeak ez duela gaitasunik izan Bake Akordioa neurriak era egokian aplikatzeko, batez ere herrialdeko hiri nagusietatik kanpo dauden inguruetan. Estatuak duen babesteko gaitasuna murriztua da, eta Gustavo Petro presidenteak aurkeztutako Bake Osoaren proiektuak ez ditu esperotako emaitzak eman gainerako talde armatuekin hasitako bake negoziazioetan. Ondorioz, onartu beharrekoa da Kolonbian oraindik zenbait barne gatazka armatu daudela, eta gatazka horiek lurraldeko hainbat lekutan intentsitate handia dutela oraindik.

2.3 Ikerketaren helburuak

Testuinguru hori ikusita, ikerketa honen helburuek babes subsidiarioaren kontzeptua eta Kolonbiako barne gatazka armatua erlazionatzea, ikusteko zein den Espainiako estatuan nazioarteko babes estatutu hori ez onartzeko erabiltzen den arrazoibidea eta bestelako interpretazio bat egin daitekeen ikustea. Ondorioz, helburuak honakoak dira:

- Espainiar estatuak Kolonbiako asilo eskatzaileen eskaerak baloratzeko orduan, jurisprudentziak babes subsidiarioari buruz hartu duen posizioa aztertzea.
- Gaur egungo testuingurua eta nazioarteko erakundeen balorazioa kontuan hartuta, Kolonbiako barne gatazka armatua babes subsidiarioa lortzeko adina dela proposatzea.

3. Ikerketaren muina

3.1 Kolonbiako barne gatazka armatua Espainiako Auzitegi Nazionaleko jurisprudentzian

Arestian aipatu legez, 2023 urtean Kolonbiako asilo ebazpenen %0,07k baino ez zuten jaso babes subsidiarioa. Jurisprudentziak arloa errefuxiatu estatutuarekin batera landu du auzietan, orokorrean estatutu hori aitortzea eskatzen baita. Espainiako Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak⁴ epai asko eman ditu Kolonbiako asilo eskatzaileen errekursoak ebazteko, eta haietako batzuek gatazka armatuaren arloa landu dute. Hala ere, hasi aurretik, aipatzekoa da Auzitegi Nazionalak ez duela babes subsidiarioari onartu azertu ditudan kasuetan. Orokorrean, bi erantzun nagusitu dira: errefuxiatu estatutua onartzea, baldintza guztiak betetzearren, edo estatutu guztiak ukatzea. Hala ere, Auzitegi Nazionalak barne gatazka armatuari buruzko hainbat arlo jorratu eta ikertu ditu kasu guztietan, era bateko edo besteko erantzuna eman ahal izateko. Arlo horiek banan-banan aurkeztuko dira:

- Barne gatazka armatua dagoela onartzea: orokorrean, Auzitegi Nazionalak ez du irizpide bakarra jarraitu gatazka armatua dagoela argudiatzeko orduan. Hala, 2023ko otsailaren 6ko epaian (1172/2021 erre. zenb.), *Elgafaji* kasuko jurisprudentzia aipatuta, adierazi zuen “jurisprudentziak eskatzen duen egoera ez d[el]a gertatzen, Salak behin baino gehiagotan adierazi duenez” (5. Zuzenbide Oinarria, aurrerantzean ZO). Hala ere, urte berean, beste sekzio batek honakoa adierazi zuen 2023ko abenduaren 13ko epaian (2468/2021 erre. zenb.):

“Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak (CICR) adierazi duenez, gaur egun sei gatazka armatu daude Kolonbian, eta Kolonbiako Estatua aurrez aurre jartzen dute (i) Nazio Askapenerako Armadarekin (ELN), (ii) Kolonbiako Autodefentsa Gaitanistekin (AGC) eta (iii) gaur egun Bake Akordioari atxikita ez dauden antzinako FARCEkin. Beste hiru gatazketan (iv) ELNk eta AGCren aurka egiten du, (v) Segunda Marquetaliak Bake Akordiora atxiki gabeko FARC ohien aurka, eta (vi) Mugako Komandoek Bake Akordiora bildu gabeko FARC ohien aurka.” (5. ZO)⁵

⁴ Espainiar estatuan nazioarteko babesari buruzko ebazpenak bide jurisdikzionalen aurkaratzeko, Administrazioarekiko auzi errekurtsua Auzitegi Nazionaleko dagokion salan aurkeztu behar da.

⁵ Alderatzekoa da, adibidez, Auzitegi Nazionalak Maliko asilo eskatzaileekin izan duen jarrerarekin. Azken kasu horietan, UNHCRen irizpideak erabiltzen ditu Maliko jazarpen arriskua aitortzeko eta babes subsidiarioa

- Barne gatazka armatuaren intentsitatea: arlo horretan ere ez dago irizpide bateraturik Auzitegi Nazionalen. Adibidez, Bogotako merkataria bati errefuxiatu estatutua aitortu zion 2021eko uztailaren 26ko epaian (162/2019 erre. zenb.) adierazi zen “muturreko indarkeria” erabili zutela eskatzailea mehatxatu zuten paramilitarrek (3. ZO). Hala ere, arestian aipatutako 2023ko abenduaren 13ko epaiak adierazi zuenez, “Kolonbiako errealitatea ezin da indarkeria orokorreko hartu, halako intentsitatearekin non dagokion eskualdera itzultzen den edozein pertsonak arriskua izango bailuke, bere presentziatik soilik” (5. ZO). Era horretara baztertu zuen ELN gerrillak eragindako indarkeria ez zela nahikoa 12/2009 Legeko 10 c) artikuluko baldintza betetzeko.
- Estatuak eskatzailea babesteko duen gaitasuna: 2018an emandako bi epaitan (martxoaren 12koa, 402/2016 erre. zenb.; eta apirilaren 2koa, 1610/2017 erre. zenb.) Auzitegi Nazionalak onartu zuen Estatuak ez zuela bere lurralde osoa guztiz kontrolatzen. Urabeños izeneko talde paramilitarrak (egun, EGC) mehatxatutako bi nekazariri errefuxiatu estatutua onartu zion talde armatuek hirietatik kanpo zuten kontrola era bereizian aipatuta. 2021eko uztailaren 26ko epaia askoz argiagoa da: “Aztertzen ari garen kasu honetan, Kolonbiako agintariek ezin izan zuten babes nahikorik eman eskatzailearen establezimenduari dagokionez” (3. ZO). Hala ere, ezezkua jaso den beste kasu batzuetan eskatzaileari argudiatu zaiola ez ziola babesik eskatu estatuari (2023ko otsailaren 6ko epaia, 4 ZO).
- Herrialdeko beste eskualde batera mugitzeko aukera: azken irizpide horretan ere ez dago adostasunik Auzitegi Nazionalen. Arestian aipatutako 2018ko epai biek Fundación Ideas por la Paz erakundearen txosten bat aurkeztu zuten, adierazteko agente jazartzaileen irismena nazioartekoa izan zitekeela (3. ZO). Alabaina, 2023ko abenduaren 13ko epaiak bestelako irizpidea eman zuen:

“indarkeria ez da hedatzen herrialde horretako lurralde osora, eta ez die biztanle guztiei eragiten. Beraz, ezin da onartu indarkeria egoera orokorturik egotea, eta, horren ondorioz, itzuliz gero, bizitza arriskuan egotea soilik Kolonbian egoteagatik; [...] Kolonbiaren hedadura geografikoa kontuan hartuta” (5. ZO).⁶

Jurisprudentziak emandako erantzunetatik ez da irizpide argirik ikusten babes subsidiarioa aitortzeko nahikoa den barne gatazka armatua dagoela ebazteko. Hala, Kolonbiako kasu batzuetan barne gatazka armatutik eratorritako jazarpena nahikoa ikusten du errefuxiatu estatutua onartzeko, baina onartzen ez duen kasuetan, ez ditu aurkeztutako frogak onartzen barne gatazka armatu hori mehatxu larria dela aitortzeko.

3.2 Kontuan hartu gabeko bestelako faktoreak

Kolonbiako asilo eskatzaileek askotan erakutsi dute euren deserrirako bidea eta bertan bizitakoak eragin sakonak dituela euren bizitzako ibilbidean. Hala, asilo eskaera prozeduran euren banakako jazarpena ez onartzea eta herrialdean dagoen indarkeria giroa ukatzea berbiktimizazio prozesuaren zati dira (Sepúlveda Giraldo eta Zambrano Quintero, 2020). Banakako jazarpena argudiatzeko elementuren bat falta zaien kasurako, eta Kolonbiako eskualde askotako gatazka egoera kontuan hartuta, badira bi faktore kontuan hartu beharko litezkeenak babes subsidiarioa era egokian baloratzeko orduan.

- Lurraldeko⁷ ikuspuntuak: arestian aipatutako moduan, Kolonbian barne gatazka armatua eskualde, lurralde eta geografia konkretu batzuetan zehazten da. Hala, Egia Argitzeko Batzordearen analisiaren eta gomendioen erdigunean dago bakea lurraldeetara eramatea (CEV, 2022), lurralde horietan mantentzen baita gerra indarrean. Cauca departamentuaren iparraldean, Valle del Cauca departamentuaren hegoaldean edo Catatumbo eskualdean, adibidez, Estatuaren presentzia oso murriztua da, eta talde armatuak dira kasu gehienetan

onartzeko (Auzitegi Nazionalen Administrazioarekiko Auzien Salako 2. sekzioko epaia, 2024ko uztailaren 17koa, 952/2021 erre. zenb. 4. ZO)

⁶ Berriz Maliko asilo eskatzaileen egoerarekin alderatuta, Auzitegi Nazionalak UNHCRen irizpideak aipatuta adierazten du herrialde horren kasuan ezinezkoa dela herrialdeko edozein lurraldetara itzultzea, eta ez dagoela barne iheserako aukerarik (2024ko azaroaren 4ko epaia, 1719/2021 erre. zenb., 4. ZO).

⁷ Kolonbiako egoera aztertzean, herrialdeak “enfoque territorial” kontzeptua erabiltzen du. Itzulpena neurea da, kontuan izanda ez dela eskualde kontzeptuarekin guztiz ondo jasotzen.

lurraldea kontrolatzen dutenak. UNHCRen aburuz, lurralde horietan gatazkak hain du intentsitate handia, ezen *Elgafaji* auziko jurisprudentziari jarraiki, ez litzatekeen eskatu beharko frogareizirik babes subsidiarioa aitortzeko (UNHCR, 2023). Orokorrean, bai Administrazioak eta bai jurisprudentziak ere ez dute atentziorik jartzen asilo eskatzaileak herrialdeko zein lurraldetatik datozen ikertzeko, eta kasu askotan Estatuaren babesaren benetan eragingarria dela deritzote.

- Talde armatuen jazarpenarako gaitasuna: Auzitegi Nazionalak 2018ko bi epaietan aitortu zuen talde armatuetako askok harremanak zituztela beste talde armatu transnasionalekin, eta herrialde osoan zutela gaitasuna eskatzaileak jartzeko. Kasu horietan, gaitasun hori nahikoa izan zen errefuxiatu estatutua aitortzeko bi pertsona horiei. Hala ere, pertsona horiek estatutuaren baldintzak bete ez arren, ez du adierazi nahi jazarpena ezin denik herrialdeko beste leku batzuetara zabaldu, eta Estatuak duen babesteko gaitasuna ere mugatua dela azpimarratu behar da. Hala, mehatxu larri eta banakakoak frogatzen kasuetarako, UNHCRek dio Kolonbiako edozein pertsonak ere jaso dezakeela babes subsidiarioa, eta talde armatuen jartzeko gaitasuna eta Estatuaren babes falta kontuan hartzea eskatzen du (UNHCR, 2023).

Hala, nazioarteko erakundeek eta Errefuxiatuen Goi Komisariotzaren iritzia eta azterketa ere presente izanda, babes subsidiarioa era zabalagoan interpretatzeko gakoak ematen ditu.

4. Ondorioak

Babes subsidiarioa beharrezko kategoria juridikoa da mundu mailan Europar Batasuneko nazioarteko babes sistema gainerako kontinenteetakoekin konparatuta zeharo atzean ez geratzeko. Bigarren mailako nazioarteko babes estatutu hori funtsezkoa da gatazka armatuetan mehatxu larriak jasan ditzaketen pertsonak babesteko. Hala ere, kasu horietan aplikatu beharreko irizpideak ez dira legedian argitu, eta EBren botere legegileak ez ditu 2010eko hamarkadaren hasierako eta 2020ko hamarkadaren hasierako asilo eta migrazio sistemaren erreformak aprobetxatu *Elgafaji* eta *Diakité* auzietako irizpideak 2011/95/EB Zuzentarauan eta 2024/1347 Erregelamenduan sartzeko. Ondorioz, auzitegien esku jarraitzen dute interpretazio ildo hori jarraitzeko ardurak eta aldatzeko aukerak.

Irizpide hain zabalek eragin dute kasu askotan politika mailan barne gatazka armatu izendatu diren gerra asko nahikotzat jo ez izana babes subsidiarioari dagokionez. Hala, Kolonbiak 1960ko hamarkadatik bizi duen barne gatazka armatu multzoa ez da bide administratiboan edo judizialean nahikotzat jo era horretako gatazka armatu izendatzeko. Espainiako estatuaren kasuan, Auzitegi Nazionalak hainbat irizpide hartu ditu kontuan herrialdeko egoera baloratzeko, eta ez du iritzi bateratua ezarri kasuok ebazteko orduan. Epai batzuek zuzenean ez dela gatazka armaturik diote, eta beste batzuek gatazka armatuak errefuxiatu estatutuak jasotzeko adina jazarpen eragiten duela. Ebaluazio kontrajarri horiek, eta orokorrean kasu bakoitza banan-banan aztertu beharrak eragin dute orokorrean Kolonbiako kasuetan erantzun anitzak ikustea. Hala ere, azpimarratzekoa da Auzitegi Nazionalak bi erantzun posible baino ez dituela ikusi: errefuxiatu estatutua onartzea, definizioko baldintza guztiak bete direlako; edo zuzenean nazioarteko babes estatutu guztiak ukatzea, ez delako barne gatazka armaturik, edo barne gatazka ez delako behar bezain larria mehatxuak sortzeko.

Egoera horren aurrean funtsezkoa da hainbat faktore azalera ateratzea Kolonbiako kasuan barne gatazka horren baldintzak era egokiagoan aztertzeko. Herrialde askotako barne gatazkek lurralde batzuetan beste batzuetan baino eragin handiagoa dute, eta Kolonbia horren adibide nagusia da. Estatuak herrialdeko leku guztiak kontrolatzeko duen zailtasuna eta talde armatuek duten lurralde kontrola dira barne gatazka larriarazten duten faktoreetako bi, eta talde armatuek dituzten harremanek euren jazarpen gaitasunak areagotzen dituzte. Testuinguru horretan, Kolonbiar estatuak barne desplazamenduaren biktimak babesteko dituen zailtasunek indartu egiten dute pertsona horiek nazioarteko babesaren eskatu behar izatea. Ondorioz, babes hori eman dezaketen herrialdeek euren babes estatutuak moldatu behar lituzkete, *non-refoulement* printzipioa errespetatzeko.

Hala ere, momentuz ikusten da babes subsidiarioa ez dela modu eraginkorrean erabili Kolonbiako asilo eskaerak ebazteko. Horrek adierazten du kategoria juridiko zabal hori mugako dispositiboa dela Administrazioaren eta auzitegien diskrezionalitatearen baitan. Migrazioen arloko Administrazio Zuzenbidea oraindik muga gisa performatzen da migratzaile eta asilo

eskatzaileen prozeduretan, eta definitzeko zailtasuna orokorrean muga sendotzeko erabiltzen dute, ateak irekitzeko erabili beharrean. Urtean milaka Kolonbiar eskatzaileri ixten diote atea, eta muga fisikoaren barneko irregulartasun egoeran uzten dituzte, beste bide bat ireki arte zain.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Egindako analisia ikerketa zabalago batetik eratorrita dago. Babes subsidiarioa bigarren mailako nazioarteko babes estatutua den heinean, helburua babes subsidiarioa gaintitu eta errefuxiatu estatutua era zabalagoan interpretatzea izango litzateke. Horretarako, badira nazioarteko zuzenbidetik eratorritako kontzeptuak (gizarte talde jakin bateko kide izateagatik jazarpena jasatea, kasu), Espainiar estatuan era murriztean aplikatzen direnak. Kontzeptu horiek argitzeak eta zabaltzeak, nazioarteko babes estatutu horiek pertsona gehiagorentzat aplikatzea ekar dezake. Beraz, ikerketaren zati hau oso erabilgarria izan daiteke kontzeptu horiek argitu ostean, errefuxiatu estatutuaren barnean sartzen ez diren pertsoneri aplikatzeko, eta bereziki, Kolonbiatik datozen asilo eskatzaileei aplikatzeko.

Bestalde, babes subsidiarioa aitortzeko erabiltzen diren irizpideei eta joerei buruzko ikerketak funtsezkoak dira ezagutzeko Espainiar estatuak zein herrialdetan ikusten dituen nazioarteko edo barne gatazka armatuak. Hala, ikertzekoa izango litzateke azken urteotan Malitik datozen milaka asilo eskatzaileri onartutako babes subsidiarioa eta zergatik ez den antzerako barne gatazka armatuak dituzten beste herrialde batzuetara zabaldu.

6. Erreferentziak

6.1 Bibliografia

- Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición. (2022). *Hallazgos y recomendaciones | Informe Final Comisión de la Verdad*. Berreskuratua 2023ko otsailaren 20an, <https://comisiondelaverdad.co/hallazgos-y-recomendaciones>
- Espainiako Barne Ministerioa. (2024). *Asilo en cifras 2023*. Ministerio del Interior. Berreskuratua 2025eko otsailaren 10ean, https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/archivos-y-documentacion/documentacion-y-publicaciones/publicaciones-descargables/publicaciones-periodicas/asilo-en-cifras/Asilo-en-cifras-2023_126150899_pdfWEB.pdf
- Espainiako Barne Ministerioa. (2025). *Asilo y Refugio | Últimos datos*. Berreskuratua 2025eko otsailaren 10ean, <https://proteccion-asilo.interior.gob.es/es/datos-e-informacion-estadistica/ultimos-datos/>
- Grippo, M. (2025). Colombia: Los muertos en el Catatumbo aumentan a 56 y los desplazados a más de 54.000. *France 24*. Berreskuratua 2025eko otsailaren 11n, <https://www.france24.com/es/am%C3%A9rica-latina/20250209-colombia-los-muertos-en-el-catatumbo-aumentan-a-56-y-los-desplazados-a-m%C3%A1s-de-54-000>
- Indepaz. (2025). Masacres en Colombia durante el 2020, 2021, 2022, 2023, 2024 y 2025. *Instituto de estudios para el desarrollo y la paz*. <https://indepaz.org.co/informe-de-masacres-en-colombia-durante-el-2020-2021/comment-page-4/#comments>
- Jakuleviciene, L. (2010). Is there a need for an extension of subsidiary protection in the European Union Qualification Directive? *Jurisprudence / Jurisprudencija*, 2(120), 215–232.
- Mellino, M. (2021). *Gobernar la Crisis de los Refugiados. Soberanismo, neoliberalismo y acogida en Europa*. Traficantes de Sueños. <https://traficantes.net/libros/gobernar-la-crisis-de-los-refugiados>
- Olivo Valverde, J. A. (2019). La autorización de residencia temporal por razones humanitarias como protección internacional subsidiaria. Referencia jurisprudencial al caso de Venezuela. *Revista de Derecho Migratorio y Extranjería*, 52, 149–192.
- Peña Mallona, A. (2024). La frontera más allá del territorio: Aproximación teórica al bordering en el derecho de asilo español. *Crítica y Resistencias. Revista de conflictos sociales latinoamericanos*, 19, 93-114.
- Rulac. (2022). *Non-international armed conflicts in Colombia*. Rule of Law in Armed Conflicts project (RULAC) of the Geneva Academy of International Humanitarian Law and Human Rights. Berreskuratua 2025eko otsailaren 10ean, <https://www.rulac.org/browse/conflicts/non-international-armed-conflicts-in-colombia>
- Sánchez, M. A., eta Njiki, M. R. (2010). TJCE – Sentencia de 17.02.2009, Elgafaji c. Staatssecretaris van Justitie—C-465/07—Política europea de asilo y refugio – Artículo 3 CEDH - Protección

- subsidiaria – Amenazas graves e individuales contra la vida o la integridad física de un civil motivadas por una violencia indiscriminada en situaciones de conflicto armado – Prueba. *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 35, Article 35. <https://recyt.fecyt.es/index.php/RDCE/article/view/45707>
- Sepúlveda-Giraldo, C. A., eta Zambrano-Quintero, L. (2020). La verdad en el exilio. Situación de las víctimas del conflicto colombiano en España. *Chasqui. Revista Latinoamericana de Comunicación*, 143, 101–118. <https://doi.org/10.16921/chasqui.v0i143.4230>
- Shorokhova, E. (2014). Sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea, de 30 de enero de 2014, C-285/12, A. Daikité c. Commissaire général aux réfugiés et aux apátrides: Apátridas. *Ars Iuris Salmanticensis*, 2, 265–267.
- Tiedemann, P. (2012). Subsidiary Protection and the Function of Article 15(c) of the Qualification Directive. *Refugee Survey Quarterly*, 31(1), 123–138. <https://doi.org/10.1093/rsq/hdr022>
- UNHCR. (2023). *International Protection Considerations with Regard to People Fleeing Colombia* (International Protection Considerations HCR/PC/COL/2023/01). United Nations High Commissioner for Refugees.
- UNHCR. (2024). *Colombia situation*. Global Focus. Berreskuratua 2025eko otsailaren 10ean, <https://reporting.unhcr.org/colombia-situation-global-appeal-2024>
- Valencia, G. D. (2025). Situación humanitaria y de seguridad del Catatumbo. *Razón Pública*. <https://razonpublica.com/situacion-humanitaria-seguridad-del-catatumbo/>

6.2 Legedia eta jurisprudentzia

- Acuerdo Final para la Terminación del Conflicto y la Construcción de una Paz Estable y Duradera. Bogotá sinatua 2016ko azaroaren 24an. Berreskuratua 2025(e)ko otsailaren 11n, <https://www.jep.gov.co:443/Normativa/Paginas/Acuerdo-Final.aspx>
- 2011/95/CE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko abenduaren 13koa, arlo hauei buruzko arauak ezartzen dituen: beste herrialde bateko nazionalai edota aberriagabeei nazioarteko babes aitorzeko baldintzei buruzkoak, errefuxiatuentzako edota ordezeko babes izateko eskubidea duten pertsonentzako estatutu bateratu bati buruzkoak, eta emandako babesaren edukari buruzkoak. EBAO, L 337/9, 2011ko abenduaren 20koa.
- 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen. EAO, 263 zenb., 2009ko urriaren 31koa.
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (Sala Nagusia) epaia, 2009ko otsailaren 17koa, C-465/07 auzia, *Elgafaji* auzia.
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (Laugarren Sala) epaia, 2014ko urtarrilaren 30ekoa, C-285/12 auzia, *Diakité* auzia.
- Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. Sekzioko epaia, 2018ko martxoaren 12koa, 402/2016 erre. zenb.
- Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. Sekzioko epaia, 2018ko apirilaren 2koa, 215/2017 erre. zenb.
- Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. Sekzioko epaia, 2021eko uztailaren 26koa, 162/2019 erre. zenb.
- Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 3. Sekzioko epaia, 2023ko otsailaren 6koa, 1172/2021 erre. zenb.
- Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 5. Sekzioko epaia, 2023ko abenduaren 13koa, 2468/2021 erre. zenb.
- Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. Sekzioko epaia, 2024ko uztailaren 18koa, 952/2021 erre. zenb.
- Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. Sekzioko epaia, 2024ko azaroaren 4koa, 1719/2021 erre. zenb.

7. Eskerrak eta oharrak

Artikulu hau Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuan burutzen ari den doktorego-tesiaren zati bat da. Tesi-proiektu horren behin-behineko izenburua honakoa da: “Gizarte talde jakin bateko kide izatea, jazarpenarako arrazoi: kontzeptuaren definizioaren irismena eta mugak, eta haren aplikazioa Kolonbiako nekazarien kasuan”. Doktorego tesi horren zuzendariak Joana Abrisketa Uriarte eta Maria Nagore Casas irakasleak dira, eta Eusko Jaurlaritzaren Doktoretza-aurreko programak finantzatuta dago 2023ko urtariletik.